

**BERMEOKO UDALEKO HERRI-ARGITERIA INSTALAZIOEN ENERGIA-  
ZERBITZUAK, MANTENU ETA BERME OSOAREKIN**

**KONTRATAZIO MAHAIAREN BATZAR AKTA (8)**

Bermeoko Urian, Udaletxean eta honen Intxausti kaleko batzar gelan, 2018ko urtarrilaren 23an, goizeko 8:00ak direnean, batzen dira:

Benito Ibarrolaza Munitiz J<sup>a</sup>, Mahaiburua

Aingeru Astui Zarraga A<sup>a</sup>, zinegotzia

Jurdana Uriarte Lejarraga A<sup>a</sup>, Udal Idazkaria

Edurne Urrutia Uriarte A<sup>a</sup>, Udal Kontuhartzailea

Igor Santa Eufemia Bordas J<sup>a</sup>, Kontratazio mahaiko idazkariaren ordezkoa

Kontratu inguruko errekurtsoen administrazio organoak, VALORIZA FACILITIES, S.A.U. enpresak egindako errekurtsoari buruz egindako bere 2017ko azaroaren 27ko 129/2017 ebazpenean oinarrituta, prozesua berriro martxan jartzeko honako pausuak eman behar dira.

1. TECUNI, S.A. enpresaren aldeko esleipena bertan behera geratzen da da eta jarritako behin betiko bermea itzuli behar zaio.
2. Prozesuan parte hartzeko behin behineko bermea jartzea nahitaezkoa denez, lizitazioan parte hartu duten enpresei, 15 egunetako epea emanez, behin behineko bermea jartzeko errekerimendua bidaltzea.

Eta gehiago barik, amaitutzat ematen da ekintza hau, goian aipatutako egun eta toki berean, Idazkari legez ziurtatzen dudana.

On iritsia,  
MAHAIBURUA

